

## 2.2 GAIAREN LANKETA

### > Nondik-nora



### - Begiratu eta entzun

#### Helburuak

- Umeek joan eta etorri aditzak ikastea.
- Nondik eta nora deklinabide kasuak ikastea.
- “Nondik zatoz?” Eta “Nora zoaz?” galderei erantzutea.

#### Prozedura

- Umeei fitxa bana banatu eta arretaz begiratzeko eskatu.
- Arbelean, joan eta etorri aditzak idatzi eta azaldu zer diren, zein esanahi duten eta zertarako erabiliko diren.
  - **Zer da?** aditzak dira.
  - **Zer esan nahi du?** Yo vengo/yo voy, tu vienes/tu vas...
  - **Zertarako erabiliko dugu?** Momentuz, nora joango garen eta nondik gatozen esateko.
- Azaldu nondik gatozen esateko hitzei (e)tik eta etatik idatziko diegula: Mendit**ik**, komunet**ik**, Dendet**atik**.
- Azaldu nora joango garen esateko hitzei (e)ra eta etara idatziko diegula: mendira, komunera, dendetara.
- Hezitzaileak mimika eginaz adibideak egin: ni udaletxetik nator, ni tabernara noa. Nahi izanez gero, erabili herriko zerbitzuen argazki-albumeko irudiak. Beste pertsona guztiekin ere adibideak egin.

#### Oharra

- Garrantzitsuen a umeez azaldutakoa ulertzea da. Euskaraz azaltzen saiatu, baina ez badute ulertu gaztelerara jo.